


Aldamio nanoegituratuak

Ehun neuralen ingeniartzaren alorrean, zelula amak diferentziatu eta neurona bihurtzea errazten duten materialak garatzeko beharra sortu da azken urteotan. [EHUko hainbat ikertzailek aldamio elastomeriko bioxurgagarriak sortu dituzte](#), baliagarriak izan daitezkeenak: topografia nanoegituratu ordenatu bat daukate euskarri berriek, ildaska-moduko batzuk, zelulen hazkuntza bideratzeko; eta, era berean, grafeno-oxidoz funtzionalizatu dute gainazala. Euskarri berriak erabilia, zelulak bizkorrago hazten direla frogatu dute, eta, norabide guztietara ausaz barreiatu beharrean —beste zenbait kasutan gertatzen den bezala—, lerrotatuta hazten dira, ikertzaileek nahi bezala bideratu dezaketen norabidean.



ARG.: *Nanomedicine: Nanotechnology, Biology and Medicine* aldizkaritik moldatua.

Etorkizuneko terapia zelularrean garrantzitsua da hori, aukera emango baitu halako matrizea nerbioehunaren eskualde kaltetu batean ezartzeko, espazioan nahi bezala orientatu eta birsortze eraginkorragoa sustatuta.

Gainera, zelulak transplantatzen direnean, hantura eta zelulen heriotza gertatu ohi dira, eta arazo izaten da. Euskarri nanoegituratu horietan, ordea, hantura modulatzeko elementuak jar daitezke. *Nanomedicine: Nanotechnology, Biology and Medicine* aldizkarian argitaratu dute lorpena EHUko ikertzaileek. ●

Biodibertsitatea babesteak desnutrizioa handitu lezake, ikuspegi global hertsiaz egiten bada



ARG.: Pixabay.

Biodibertsitate-galera globala geldiarazten ez dela ikusita, balio ekologiko handiko eremu naturalak babesteko proposamena jarri da mahai gainean 2020az geroztik. Hain zuzen, Lurraren % 30 edo % 50 babestea. Eztabaida korapilatsua da, ordea, begirada global batetik proposatu baita, tokian tokiko baldintzapenak kontuan hartu gabe. Edinburgoko Unibertsitateko ikertzaileek neurririk erradikalenak aztertu dituzte, eta kalkulatu dute 200.000 heriotzatik gora eragingo litzuketela Asia-ko hegoaldean eta Saharaz hegoaldeko Afrikan.

Izan ere, une honetan, balio ekologiko handiko lur asko gerriko subtropikalaren barruan kokatuta daude, eta, ondorioz, hango nekazaritza- eta abeltzaintza-lurrak murriztea ekarriko luke. Elikagaiak sortzeko gaitasuna murrizteak desnutrizio-tasa areagotu lezake munduko herrialderik zaugarrienetan. Batez ere, Saharaz hegoaldeko Afrikan, Pakistanen eta Indian.

Ikertzaileek diote biodibertsitatearen galerari hain modu globalean begiratzea herrialde aberatsentzat soilik dela onuragarria, haragi gutxiago jan eta osasuna hobetuko bailukete. Beraz, tokian tokiko ikuspegi txertatzea eskatu dute. ●



[Albiste gehiago webgunean](#)